


Berdintasun memoria 2025




2023-2027 Aldirako berdintasun-plana



2023-2027 Aldirako Berdintasun Planaren helburu nagusiak bi dira: EROSKI Taldeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra bermatzea, eta haien arteko lan-diskriminazio oro saihestea. Horretarako, hainbat jarduketa egiten dira, xede hauekin:

- Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa sustatzea.
- Enpresaren eremuan emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua lortzea.
- Enpresan sexuan, sexu-orientazio eta -identitatean, sexu-adierazpenean eta sexu-ezaugarrietan oinarritutako zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-eza bermatzea; bereziki, amatasunaren, aitatasunaren, familia-betebeharrak bere gain hartzearen, egoera zibilaren eta lan-baldintzen ondoriozkoak.
- Gizonei eta emakumeei enpresa-prestakuntzarako sarbidea berdintasunean bermatzea.
- Sexu-jazarpena eta sexuan, sexu-orientazioan, sexu-identitatean, sexu-adierazpenean eta sexu-ezaugarrietan oinarritutako jazarpena prebenitzea, eta prebentzio-neurriak nahiz zuzenketa-jarduketak jasotzen dituen jokabide-kode bat ezartzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunezko soldata-politika bermatzea, eta lanbide-kategoria guztietan soldata-arrakalarik ez egotea.
- Berdintasuneko komunikazio- eta prestakuntza-ekintzen bidez, antolamendu-maila guztietan kultura-aldaketa sustatzea.
- Plantillako gizonen eta emakumeen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea bultzatzea.
- Enpresaren zerbitzuetan eta kudeaketa-arlo guztietan genero-ikuspegia transbertsalki txertatzea.
- Interes-talde guztietan berdintasunaren trakzio-erakunde izatea.

Lan- Arloak



Plan honek lan-arlo hauek ditu:

Jarraipena egiteko eta betetzeko ekintzak.

Enplegua lortzeko, hautatzeko eta kontratatzeko ekintzak.

Prestakuntzarako eta garapenerako ekintzak.

Sustapenerako ekintzak.

Lanbide-sailkapeneko ekintzak.

Ordainsari-politikako ekintzak.

Erantzukidetasuna sustatzeko ekintzak.

Emakumeen azpiordezkaritza zuzentzeko ekintzak.


Lanean sexu-indarkeria prebenitzeko ekintzak.

Lan-osasunaren arloko ekintzak.

Genero-indarkeriaren aurkako eta biktimei laguntzeko ekintzak.

Hizkera eta komunikazio inklusiborako ekintzak.

Berdintasun- planaren eta informazioaren barne-kanalaren jarraipena




EROSKI Taldeko Berdintasun Batzordea

EROSKIren diagnostikoa eta Berdintasun Plana aldian-aldian egiteko eta eguneratzeko ardura duen organoa.

Batzordea 2023an ezarri zen, eta egungo Berdintasun Planaren negoziazioan parte hartu duten alderdi berberak osatzen dute: 9 pertsonak enpresaren aldetik eta 9 pertsonak alderdi sozialaren aldetik. Eroski Taldearen Berdintasun Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteaz arduratzen da.

Batzorde honek uztaillean egin zuen bilera.

Eroski Koop. E.ko Berdintasunaren Behatokia



**Eroski Koop. E.an
Berdintasunaren
Behatokia daukagu,
berdintasun-printzipioa
erakunde osoan betetzen
dela zaintzeko. 2005ean
sortu zen behatokia,
helburu hauekin:**

A

EROSKlren barruan emakumeen errealitatera hurbiltzea.

B

Sexuan oinarritutako lan-desberdinkeriak ezabatzeko lan egitea.

C

Bere asmo, talentu eta beharretara hobeto egokitzen den lanbide-ingurunea sortzea.

cómplices
Cada persona, cuenta

**Mendekotasun hierarkikorik gabeko boluntario-
talde bat da, Berdintasuneko arduradunak
bultzaturikoa.**

**Informazioaren
barne-kanala.**



Informazioaren barne-kanal bat ere badaukagu, laneko sexu-jazarpenaren aurkako bi protokolarekin. Aholkularitza konfidentzialeko zerbitzua eskaintzen du, balizko kasuak saihesteko eta edozein gorabehera bideratzeko.

Eroski taldea zifratan 2025ean

		Emakumeen %	Gizonen %
Plantilla	Pertsona-kopurua, guztira	% 75,58	% 24,42
Lanbide-taldea	Aginte-postuetako pertsonen kopurua (Zuzendaritza, Kudeatzailletza, Aginteak, Arduradunak)	% 74,80	% 25,20
Kontziliazioa Baimenak	Legezko zaintzagatik lanaldi-murrizketa edo eszedentzia duten pertsonen kop.	% 94,65	% 5,35
	Familiartekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa edo eszedentzia duten pertsonen kop.	% 94,48	% 5,52
	Borondatezko lanaldi-murrizketa edo eszedentzia duten pertsonen kop.	% 80,29	% 19,71
	Lanaldi-murrizketa edo eszedentzia duten pertsonak, guztira	3.177	
Prestakuntza	Prestakuntza-orduen %	% 74,53	% 25,47
	Prestakuntza jaso duten pertsonen %	% 71,38	% 28,62
Sustapena	Sustatutako pertsonak	% 71,04	% 28,96

2025ean Gauzatutako jardueren memoria


**2025ean gauzatutako ekintzak
jasotzen ditu, esku-hartze eremu
hauek bereizita:**





01

Kultura Berdinzalea

cómplices
Cada persona, cuenta



Kultura berdinzalea



Urtero berrikusten da Berdintasun Plana betetzen dela.

A

Berdintasun Batzordeak 2025eko uztailaren 2an egin zuen bilera, jarraipen- eta ebaluazio-txostenekin.

B


Eroski Koop. E.ko Berdintasunaren Behatokiak 2025eko martxoaren 5ean eta urriaren 7an egin ditu bilerak.

Langileen kolektiboak Berdintasun Plana eskuratzea.

A

Intranetean eskuratu daiteke, eta sartuta dago langile berriei harrera egiteko planetan.


Kultura berdinzalea



- EMAKUMEAK
- GIZONAK

Sozietatearen lidergoa.

Jarraipena egiten jarraitzen dugu, kooperatibaren organo sozialetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua izaten saiatzeko. Gaur egun, emakumeak ordezkaritza sozialaren % 75 dira.



GOBERNU-ORGANOETAN PARTE HARTZEA / 2025

Batzar Nagusia



68% / 32%

Batzorde Delegatua



85% / 15%

Kontseilu Errektorea



75% / 25%


Kontseilu Soziala



75% / 25%


02

Berdintasunaren Kudeaketa




cómplices
Cada persona, cuenta

Enplegua sortzea





EROSKI Taldeak aurrera jarraitzen du genero-ekitatea bultzatzeko eta emakumeen lan-aukerak sustatzeko konpromisoarekin.

2025ean, EROSKI Taldeko kolektibo osoaren % 75,58 emakumeak dira.



Soldata- arrakalari buruzko datuen



● MUJER
● HOMBRE

Ordainsari-solidaritatearen printzipioa erakunde osoan aplikatzen dugu, gure balioekin bat etorriz. Horrela, gure kultura korporatiboa egunerokoa jarduteko daukagun moduarekin lerrokatzen dugu.

(Gizonezko enplegatuen lanordu bakoitzeko ordainsari gordinaren batez besteko maila – Emakumezko enplegatuen lanordu bakoitzeko ordainsari gordinaren batez besteko maila) / Gizonezko enplegatuen lanordu bakoitzeko ordainsari gordinaren batez besteko maila * 100)

SOLDATA BERDINTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA OSPATU DUGU.


Barne-kontzientziazioko kanpaina horren bidez, soldata-arrakalari hurbiletik jarraipena egiteak eta ekintzak gauzatzeak duen garrantzia ikusarazi dugu.

SOLDATA-ARRAKALA

13,05%

2024AREKIN
ALDERATUTA,
HOBETUNTZA
DAGO

Lanordu bakoitzeko
batez besteko
ordainsari gordina



Soldata-arrakala % 13,05ekoa da; beraz, iragan urteekin alderatuta, arrakala murrizten ari da pixkanaka. 2024an, % 13,20koa izan zen.



Alde horren zergatia da gizonak emakumeak baino erantzukizun handiagoko –eta, beraz, ordainsari handiagoko– lanbide–taldeetan daudela sailkatuta. Horregatik, **genero-arrakala ezabatzeko eginkizunean aurrera jarraitzen dugu**, segregazio bertikala landuz, prestakuntza-programetan arreta jarritz eta genero-alborapenik gabeko sustapen profesionalaren alde eginez.

Combatir la brecha salarial, un paso más hacia la igualdad

El Día Internacional de la Igualdad Salarial nos recuerda la importancia de cerrar la brecha salarial entre hombres y mujeres. En la Unión Europea, las mujeres ganan de media un 16 % menos por hora que los hombres. En Grupo Eroski velamos por la reducción de esta brecha y para ello hacemos un registro retributivo anual y una auditoría cada cuatro años



Emakumeen ordezkaritza orekatzeko ekintzak




- EMAKUMEAK
- GIZONAK

ERANTZUKIZUN- POSTUETAN DAUDEN EMAKUMEEN EHUNEKOA

Gaur egun, EROSKI Taldeko erantzukizun-postuen % 74,80 emakumeek betetzen dituzte.


2025ean, sustatutako pertsonen % 71,04 emakumeak izan dira.

EMAKUMEAK EROSKI TALDEKO ERANTZUKIZUNEZKO POSTUETAN





2024AREKIN
ALDERATUTA,
HOBEKUNTZA
DAGO

EMAKUMEEN SUSTAPENA 2025EAN



Emakumeen ordezkaritza orekatzeko ekintzak




LANPOSTU HUTSAK


Argitaratu egiten dira
hutsik geratzen dira
lanpostuak, EROSKI
Taldeko enpresa
bakoitzaren ohiko
komunikabideen bidez.

BERDINTASUNEZKO HAUTAKETARI

EROSKI Taldeko
20 pertsonak
berdintasunezko
hautaketari buruzko
prestakuntza jaso dute.



Emakumeen ordezkaritza orekatzeko ekintzak



PRESTAKUNTZA- PROGRAMAK EZARTZEN DITUGU, AGINTE-, AURREZUZENDARITZA- ETA ZUZENDARITZA- POSTUETAKO LANBIDE- HAZKUNDERAKO.

Horretarako, negozio-
kudeatzaileentzako, Eroski
SUMMAko eta potentziala
duten kudeatzaileentzako
MBA programen esparruan,
80 pertsonako kolektibo
batekin ari gara lanean gaur
egun, eta horietatik % 74
emakumeak dira.




Vegalsa sozietatean
hiru saio egin dira
emakumeen ahalduentze-
programa eguneratzeko.
2022an jarri zen abian,
eta 11 emakumek hartu
dute parte.

Vegalsa sozietatean
hiru saio egin dira
emakumeen ahalduentze-
programa eguneratzeko.
2022an jarri zen abian,
eta 11 emakumek hartu
dute parte.



PRESTAKUNTZA AUTOGESTIONATUA

Prestakuntza nork bere
modura autokudeatu
ahal izateko, kanal
berri bat ezarri dugu,
egoitzetako langile
guztiek dohainik eskuratu
ahal izan ditzaten
prestakuntza-edukiak,
sarbide zentralizatu

baten bidez. Kanal horrek
nahierara funtzionatzen
du, eta aukera ematen
du pertsona bakoitzak
ikaskuntza-baliabideak
bere erritmoan aztertu eta
kontsumitzeko.



Emakumeen ordezkaritza orekatzeko ekintzak



BISTARATZEA

Komunikazioko barne-kanalen bidez, Eroski Taldearen barruan sustatzen diren emakumeak bistaratzea, emakumeen kolektiboan erreferenteak sortzeko.





«Pribilegio bat izan da programan parte hartzea. Prestakuntza egundokoa izan da. Zorte handia da lanpostua sei hilabetez utzi eta ikasten aritu ahal izatea, bai dendan, bai jaso ditugun ikastaro eta prestakuntza guztietan.»



«Oso erakargarria iruditzen zitzaidan enpresan sustatu ahal izatea, gustuko lanean, eta gauza desberdinak egiten joatea, baita gauza berriak deskubritzea ere.»

Berdintasunezko komunikazioa bultzatzen



HIZKERA INKLUSIBOA



Eroski Taldeak hizkera inklusiboaren erabilera sustatzen du, eta, horretarako, prestakuntza ematen die langileei. «Hizkeraren garrantzia» prestakuntza-moduluak bi helburu ditu: nolako hizkera erabiltzen dugun konturatzea eta eremu guztietan hizkera inklusiboaren erabilera normalizatzea.



LA IMPORTANCIA DEL LENGUAJE INCLUSIVO

Grupo Eroski promueve el uso del lenguaje inclusivo con una nueva formación dirigida al colectivo de personas trabajadoras. El módulo formativo 'La importancia del lenguaje' busca crear conciencia sobre cómo utilizamos el lenguaje y normalizar su uso inclusivo en todos los ámbitos

Komunikazio- eta Kontzientziazio-ekintzak





MARTXOAREN 8KO KANPAINA

Martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, Eroski Taldeak genero-berdintasunaren alde duen konpromiso irmoa partekatu du langileen kolektiboarekin.

Oraingoan, ekimen bat abiarazi dugu Nexo intranetean, dendako, plataformetako eta egoitzetako lantalde guztiak ospakizun- eta borroka-jardunaldi honekin bat egitera animatzeko. Horretarako, posta elektronikoz edo WhatsApp bidez argazki bat bidaltzera gonbidatu genituen, M-8a aldeztuz agertzen zirela.



Komunikazio- eta Kontzientziazio-ekintzak



HARROTASUNAREN EGUNEKO KANPAINA

«Izateaz harro. Partekatzeaz harro» lelopean, Eroskin LGBTIQa+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatu dugu. LGBTIQa+ kolektiboaren eskubideak aldarrikatzeko eguna da hori, bai eta aniztasun aberasgarria ikusarazteko borrokan jarraitzekoa ere.




BULARREKO MINBIZIAREN AURKAKO KANPAINA





03

Lan-espazio seguruak

cómplices
Cada persona, cuenta





Laneko prebentzioaren eta osasunaren arloko ekintzak



Prebentzioaren ikuspegitik, bularreko minbiziaren inguruko kanpaina bat abiarazi dugu. Online prestakuntza-modulu bat daukagu kolektibo guztientzat eskuragarri, minbizi hori goiz detektatzearen inguruan.



Laneko prebentzioaren eta osasunaren arloko ekintzak



OSASUNEKO PREBENTZIO-PROGRAMAK

Azken urteotan, langileen ongizatearen aldeko apustua egiten duten osasun-programak jarri ditugu martxan, hala nola STIMULUS laguntza psikologikoko programa.

Era berean, nabarmentzekoak dira koadro mediko digitala (LANKIT OSASUNA / FEM SENTIR SALUD aplikazioaren bidez), FISIFY fisioterapia digitaleko programa eta prebentzio-fisioterapiako programa, DAVID metodologia nordikoarekin, besteak beste. Azken horietan 1.800 pertsonak hartu dute parte, eta horietatik % 57 (1029) emakumeak izan dira.

EROSKI S.Coop.

EQUIPAFASA

PENINSULACO

CECOSA HIPER

CECOSA SUPER

EROSKI S.Coop.

EQUIPAFASA

PENINSULACO

CECOSA HIPER

CECOSA SUPER

EROSKI S.Coop.

EQUIPAFASA

PENINSULACO

CECOSA HIPER

CECOSA SUPER

EROSKI S.Coop.

EQUIPAFASA

PENINSULACO

CECOSA HIPER

CECOSA SUPER

EROSKI S.Coop.

EQUIPAFASA

PENINSULACO

CECOSA HIPER

CECOSA SUPER

EROSKI S.Coop.

EQUIPAFASA

PENINSULACO

CECOSA HIPER

CECOSA SUPER

EROSKI S.Coop.

EQUIPAFASA

PENINSULACO

CECOSA HIPER

CECOSA SUPER

EROSKI S.Coop.

EQUIPAFASA

PENINSULACO

CECOSA HIPER

CECOSA SUPER

EROSKI S.Coop.

EQUIPAFASA

PENINSULACO

CECOSA HIPER

CECOSA SUPER

EROSKI S.Coop.

EQUIPAFASA

PENINSULACO

CECOSA HIPER

CECOSA SUPER

EROSKI S.Coop.

EQUIPAFASA

PENINSULACO

CECOSA HIPER

CECOSA SUPER

EROSKI S.Coop.

EQUIPAFASA

PENINSULACO

CECOSA HIPER

CECOSA SUPER

EMOCIONAL

STIMULUS

- Programa de Apoyo Psicologico a la persona trabajadora y su unidad familiar
- Contacto telematico o presencial (max 5 sesiones/año)

FÍSICO

LANKIT

- Herramienta de telemedicina.
- Atención Primaria + 10 especialidades.
- 24/7
- Recetas electronicas
- Posibilidad de 3 dias de LR máximo 3 veces en el año

ENCODE

- App de ejercicios/deporte.
- Entrena donde quieras.
- Más de 300 clases.



FISIFY

- Programa de Fisioterapia Preventiva digital.
- Colectivo Sedes y Puestos Advtos Plataformas

CLINICAS ATHLON

- Programa de Fisioterapia Preventiva.
- Metodologia finlandesa DAVID.
- Colectivo Plataformas y Tiendas. Puestos/Tareas Priorizadas.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako laguntza





GENERO-INDARKERIARI BURUZKO BARNE- KANPAINA

Genero-indarkeriari buruzko barne-kanpaina jarri dugu abian, eta langile guztien eskura jarri dugu EROSKI Taldeko genero-indarkeriaren biktimen eta sexu-jazarpenaren protokoloa. (Intranetean eskuragarri dago dokumentua).

Protokolo horretan, barne-kolektiboa sentsibilizatzeko alderdi batzuk azaltzen dira, emakumeen aurkako indarkeria-egoerak identifikatzen laguntzeko, eta jarraibide batzuk ematen dira, lankide batzuk indarkeria hori jasaten aritu daitezkeela detektatzeko.



Sexu-jazarpenaren protokoloa gogorazpena eta prestakuntza



Gogorazten dugu EROSKI Taldearen sexu-jazarpenaren protokoloa eskuragarri dagoela, eta aginteen, zuzendaritzaren eta gobernu-organismoen kolektiboko 344 pertsonari horren inguruko prestakuntza eman zaiela.



PROTOCOLO DE ACTUACIÓN FRENTE AL ACOSO SEXUAL
POR RAZÓN DE SEXO, ORIENTACIÓN E IDENTIDAD SEXUAL, EXPRESIÓN DE SEXO Y CARACTERÍSTICAS SEXUALES

Protocolo contra el acoso sexual

Eroski manifiesta su tolerancia cero ante la concurrencia en toda su organización de conductas constitutivas de acoso sexual o acoso por razón de sexo, así como por razón de su orientación e identificación de género, expresión de sexo y características sexuales. Con el fin de detectar y resolver este tipo de conductas, Eroski S. Coop y de Grupo Eroski ha establecido sendos protocolos contra el acoso sexual




La prevención y actuación ante el acoso sexual, por razón de sexo, LGTBI y psicológico.




04

Kontziliazio arduratsua



cómplices
Cada persona, cuenta

Kontziliazio- neurriek 2025ean izandako erabileraren analisia.




KONTZILIAZIO-NEURRIEK 2025EAN IZANDAKO ERABILERAREN ANALISIA.

Kontziliazio-neurrien erabileran fokua jartzen jarraitzen dugu, eta ikusten dugu oraindik ere gehienbat emakumeek erabiltzen dituztela halako neurriak.

2025ean zehazki 3.177 pertsonak erabili dituzte neurriak. Ikusten da baimen horien % 92 emakumeek eskatu dituztela; gehien-gehienetan, adinekoak eta adingabeak zaintzeko.



Horregatik, behatokiak berretsi egiten du sentsibilizazio-kanpainak egiten jarraitzeko asmoa, Eroskiko kolektiboa erantzukidetasunaz eta haren ondorioez kontzienteago izateko.





**5 EGUNEKO
LANALDIA**

5 eguneko lanaldia ezarri da Eroski Koop. Eko supermerkatu eta hipermerkatu guztietan –udako hilabeteetan izan ezik–.

- EMAKUMEAK
- GIZONAK



Jaiotzarako, adopziorako eta adingabearen zaintzarako gida



Eroski Koop. E.aren
**jaiotzarako, adopziorako
eta adingabearen
zaintzarako gida
argitaratu dugu,**

baimen hori hedatu egin
dela jakinarazteko eta
hazkuntza erantzukidea
sustatzeko, familia-
erantzukizunak ekitatiboki
banatzea funtsezkoa
delako gizarte bidezkoago
eta berdinzaleago
baterantz aurrera egiteko.
Konpromiso hori guraso
bakarreko familiei eta
LGTBI+ pertsoneri ere
zabaltzen zaie.



GUIA

NACIMIENTO, ADOPCIÓN Y
CUIDADO DEL MENOR

OCTUBRE 2025



05

Gizarte- erantzukizuna

cómplices
Cada persona, cuenta





Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak lan-munduan txertatzea




Aurrera jarraitzen dugu **genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak lan-munduan txertatzeko** daukagun konpromisoarekin. Horretarako, lankidetzahitzarmenak dauzkagu, Espainian Gurutze Gorriarekin eta Gipuzkoan Daiteke gizarte-aholkularitzarekin.



Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak lan-munduan txertatzea




Kanpaina solidarioa



ZENTIMO SOLIDARIOAK DOHAINTZA-KANPAINA

Zentimo Solidarioak dohaintza-kanpainaren bidez, elkartasuna adierazten diegu genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien seme-alabei.

Kanpaina solidarioa



BIZKAIKO MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEAREKIN LANKIDETZAN ARITZEN GARA.

Haren ibilaldi solidarioan aktiboki parte hartzera animatzen ditugu Eroskiko langileak.



Bilbao en marcha contra el cáncer martxan minbiziaren aurka

8 de junio, 11:00h.
Ekainak 8, 11:00.


I Marcha no competitiva de 4 km.
4 km.ko I. martxa ez-lehiakorra

Precio · prezioa:

10 € general · orokorra
8 € infantil (hasta 12 años)
haurrak (12 urtera arte)



Generation Equality Ekimena





HERRI ITUNEKO KIDE GARA

Herri Ituna Eusko Jaurlaritzaren ekimen bat da, Generation Equality mugimenduan kokatzen dena, NBE erakundeak bultzatuta. Berdintasunean eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabe bizitzea du helburu.



LEAD NETWORK EUROPE erakundeko Aholku Batzordeko kide gara



LEAD NETWORK EUROPE ERAKUNDEKO Aholku BATZORDEKO KIDE GARA.

2023az geroztik, Eroskik aktiboki hartzen du parte LEAD Network Europe sarean. Elkarre horrek industriaren arloko hainbat enpresa eta lider biltzen ditu, Europan berdintasuna, inklusioa eta aniztasuna bultzatzeko asmo irmoa dutenak txikizkako merkataritzan eta kontsumo-ondasunetan. 2025ean, Eroski Taldea LEAD Network Europeko Aholku Batzordean sartu da, eta, horrela, indartu egin du bere konpromisoa. Zehazki, Beatriz Santos da gure ordezkaria; hots, EROSKI Taldeko zuzendari komertziala.

Horrez gain, EROSKI Taldeak hitzaldi bat eman du LEAD Network Europe elkartearen Urteko Konferentzian, Milanen. Europako kontsumo-ondasunen eta txikizkako salmenta-industriaren topaketa horretan, liderrak, adituak eta aldaketa-eragileak elkartzen dira, eta gogorarazten dute antolakundeen orainean eta etorkizunean funtsezkoa dela askotarikoagoak, inklusiboagoak eta gizatiarragoak izatea.



Welcome to our new Advisory Board Member


"Together, we embrace diversity, champion inclusion, and drive equality forward. Since 2023, Eroski has actively engaged with LEAD Network, fostering synergies in the retail sector for DEI."

This new role is both an honour and an opportunity for growth—professionally and personally. I firmly believe in cooperation to generate greater impact. Let's keep moving!"

Beatriz Santos Vesga
Socia Cooperativista & Directora Comercial
Grupo Eroski



I'm women Ekimena




«I'M WOMEN. CONSUMER GOODS (I'MW)» EKIMENA AURKEZTU DA.

Rosa Carabelek, EROSKI Taldeko CEOak, AECOC elkartearen 40. kongresuan aurkeztu zuen ekimen hori. Kontsumo handiaren sektorean erantzukizun-postuetan dauden hainbat emakumek sortu dute ekimena, lankidetzaren espiritu sendoarekin. Ekimen horrek talentua, emakumea, ikusgaitasuna eta eskuzabaltasuna ditu ardatz, eta gure sektorean emakumeen talentuari ahotza ematea du helburu.



BILBOFEM kolaborazioa





EROSKI, BILBOFEM 2025EKIN LANKIDETZAN

Bilbofem emakumeentzako ibilaldi zikloturista bat da, emakumeak kirol horretan has daitezzen animatzera zuzendua. Eroski lankidetzan aritzen da Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak eta Euskadi Fundazioak antolatutako ekimen horretan.



Lankidetza Bilbao Basketekin



EROSKI TALDEAK LANKIDETZAN DIHARDU BILBAO BASKET EMAKUME- PROIEKTUAREKIN

Eroski Taldeak lankidetzan dihardu Bilbao Basket emakume-proiektuarekin, Bizkaiko lurralde historikoan saskibaloia ren arloan emakumeen talentua garatzen laguntzeko.



2025

